



Espaniar Futbolarien Elkarkidegoa
Mutualidad de Futbolistas Españoles
Gipuzkoako Ordezkaritza – Delegación Guipuzcoana
DONOSTIA- SAN SEBASTIAN

DATU PERTSONALAK TRATATZEKO ADOSTASUNA

Datu Pertsonalen Babeserako Arauak betez, jakinarazten dizugu agiri hau sinatuz gero (edo zure legezko tutoreak edo ordezkariak sinatuz gero) baimena ematen diozula Mutualidad de Previsión Social de Futbolistas Españoles a Prima Fija-ri zure datu pertsonalak tratatzeko (MUPRESFE, IFK V85599645, Viriato kalea 2, 1. solairua, 2. atea (28010), Madril). Datu horiek mutualitateak eskaintako asistentzia medikoko estaldura egoki emateko bakarrik erabiliko dira, afiliazio-buletinaren denboraldia indarrean den bitartean, eta, hala badagokio, mutualitateari eskatu ahal zaizkion epeen barruan. Zure datuak autonomia- zein lurralde-federazioei lagatu ahalko zaizkie (Kirolari buruzko urriaren 15eko 10/1990 Legearen 59. artikulua betetze aldera), baita berraseguru-etxeei ere (MUPRESFE eta berraseguru-etxeen arteko hitzarmenak betetzeko, esaterako Aseguru Kontratuei buruzko urriaren 8ko 50/1980 Dekretuaren 77. artikulua). Era berean, MUPRESFERekin elkarlanean aritzen diren zentro medikoei jakinarazi ahalko zaizkie (MUPRESFE eta zentro medikoen arteko asistentzia medikoko hitzarmenak betetzeko). Aukera duzu datuak irispidean izateko, zuzentzeko, ezerezteko, horien aurka egiteko, transferitzeko eta tratamendua mugatzeko eskubidea egikaritzeko. Horretarako, idazki bat bidali beharko duzu Mutualidad de Previsión Social de Futbolistas Españoles a Prima Fijari zuzenduta (Viriato kalea 2, 1. solairua, 2. atea (28010), Madril), zure nortasun-agiri nazionalaren fotokopiarekin batera edo, adingabe baten arduraduna bazara, haren ordezkaria zarela egiaztatzen duen agiriaren fotokopiarekin batera. Posta elektronikoko bidez ere egin dezakezu eskaera, honako helbide honetara bidalita: notificaciones_gdpr@mupresfe.com

Izen-abizenak.....

NAN.....

SINADURA

Adingabea izanez gero, amak edo aitak sinatu beharko du agiri hau, edo legezko tutore edo ordezkariak, hala badagokio.

Aita/amaren edo tutorearen izen-abizenak.....

NAN.....